



## “Zirkoko azken tximinoak gara”

**Miguel Angel Perez Lasa**  
Primerako epailea

Ez bazaizue elkarrizketa hau gustatzen...  
arbitroaren errua da.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

### Zergatik akordatzen da hainbeste jende arbitroen amekin?

Errazena delako. Penagarria da jendeak bere miseria gurekin ordaintzea. Etsigarria, XXI. mendean halako errespetu falta nabarmenak egotea. Gu ere kirolariak gara, pertsonak, eta tarteka hanka-sartzeko eskubidea izango dugu, ala?

### Jokalariek zuek engainatzeko duten eskubide berbera.

Nola hartu liteke tranpa bertutetzat? Epailea engainatzen denean zergatik kritikatzan da arbitroa eta ez tranpatia? Gizartearen beste zer arlotan ikusten da hori? Zergatik ez da alderantziz gertatzen?

### Galdera gehiegi gauza onerako.

Nola esan daiteke Maradonak eskuz sartu zuen gol famatu hura “Jainkoaren eskua” izan zela? Jainkoaren eskua ez, deabruaren eskua izan zen!

### Jainko ustekoa, dokumentu bat ez sinatzeagatik nazioarteko epailea izateko bidea itxi zizuna.

Ez da arantza bat, bizkarrean sartuta daramadana ezpata baizik. Zorionez, hankak moztu zizkidaten arren, korrika jarraitzen dut, eta ordutik askoz gehiago gozatzen dut arbitratzen.

### Ez dakit zergatik, arbitro ohiek hedabideetan banatzen duten egurra ikusita. Masokista agian?

Batuena, tristea ez ezik, saldukeria da. Badakite zelaian zer-nola bizi diren gauzak, baina hedabidearen komenientziatzako presioak irentsi, eta edozer gauza esateko gai dira polemika sortzeagatik.

### Papera saldu behar dela, *amigo!*

Bideo-arbitrajea horrezagatik ez dutela jartzten uste dut. Ez delako komeni. Polemika ez balego zeri buruz hitz egingo luke jendeak? Zeri buruz idatziko litzateke? Polemika gabe futbolak asko galduko luke.

### Eskerrak jokalar asko jainkotutako mukizua diren.

Zelaitik kanpora egin dezatela nahi dutena baina zelaian nik agintzen dut. Masa idoloak izan litezke egunerokoan baina zelaian bat gehiago dira. Autoritatez egin behar diezu aurre, eta errespetua irabazteko beldur apur bat izan behar dizute, bestela...

### Ziur zerrenda beltzak daukazuela!

Badakigu nor erortzen den errazki, nor den probokatzaila, nor borrokazalea, nork egiten duen salto ukondoak zabaldua... Esan dezagun elkar oso ondo ezagutzen dugula.

### Epaile bat behar izate hutsa ez al da porrota?

Jokalariek zintzoak balira ez litzateke arbitrorik behar, baina ez dira eta horrezagatik gaude gu. Ulergaitz zaidana da sekulako boterea daukagula, eta hala ere, zirkoko azken tximinoak gara. ■